

### EDITORIALA

Sindikatu behar dugu!

**U**ne zail hauetan, gobernuek patronal neoliberalenen antzera jokatzen dute, eta bilatzen dute bai negoziazio kolektiborako eskubidea de facto desagerraraztea bai enplegu publikoa suntsitzea ere. Bada, garaia hauetan garrantzitsua da -erabakigarria esango genuke- errealitatera egokitzea eta gure indar-korrelazioa hobetzea, afiliatuen eta, ondorioz, langile guztien interesetarako baliagarriak izateko.

Urtetan, negoziazio kolektiboa kudeatzeko kapazak izan gara, eta zailtasunak zailtasun -bategi ere azken hamarkadan-, horri esker gai izan gara lehendik eskuratutako eskubideak iraunarazteko, bai eta gai zehatzen bat edo beste hobetzeko ere.

Guztiarekin ere, 2010etik hona egoera aldatu egin da. Dagoeneko ez dugu hobekuntzarik kudeatzen; orain murrizketei egin behar diegu aurre eta horrek, nahi eta nahi ez, jarrera aldatzea eskatzen digu.

Zer egin behar du atal sindikalak -hau da, Euskadiko Justizia Administraziooko afiliatu guztiok- eraginkorrak izateko? lan-baldintzak lorrintzea saihesteko?

Uste osoa dugu murrizketen bidea ez dela egokia krisitik irteteko. Orduan, gure agintariak zergatik egiten eta betetzen dituzte lege bidegabeak? Zergatik egiten eta betetzen dituzte lege guztiz kaltegarriak, ustez ordezkatzeko duten gizartearen pobretzea ekartzen dutenak? zergatik egiten dituzte enplegua suntsitzen duten lege eta dekretuak? Ziur egonda hartutako neurriek irizpide ideologikoei erantzuten dietela, gai izan behar dugu presio-uholde bat sortzeko, gure agintari politikoek -gure enplegugileek- beren erabakiak alda ditzaten. Behartu behar ditugu atzera botatzeko egingandako murrizketak, eta enplegu publikoari eusteko. Finean, derrigortu behar ditugu eskubide kolektiboen aurkako erasoekin behingoz bukatzea, bai eta gure artean hedatzen ari den aberastasunaren banaketa bidegabearekin amaitzea ere.

Irtenbidea gure esku dago, antolatze gure gaitasunean. Indar-korrelazioa irabazi eta irmotasun-jarrera erabatekoa sustatu behar dugu. Aurten Justiziako langileok zenbait lanuzte eta elkarretaratze ugari egin ditugu. Erabat sinetsita gaude bide onetik goazela. Horrela, mobilizazioak ondoz ondo eta etengabe bultzatuz, neurri horiek eraman gaituzten gatazka iraunkorraren lekukotasuna eman ahal izango dugu; eta egoera aldatzea lortuko dugu.



## GURE LAN ESKUBIDEAK, KOLOKAN Laurteko beltza

**2010:** Lopezen gobernuak, Zapateroren dekretua aitzakiatzat hartuta, %5 murrizten ditu gure soldatak; ez bakarrik urte horretarako, sine die baizik. Neurri-sorta berean, ITZARRIRako (soldata geroratua) ekarpenen erdia ere kendu digu; murrizketa hori ere sine die.

**2011:** Lopezen gobernuak, murrizketen egitarau neoliberalari jarraiki, osagaiak kentzen dizkigu aldi baterako ezintasunen kasuetan. Era berean, erabakitzen du aldi baterako lan-beharrak ez ordezkatzeko, bai eta lanpostu hutsak ez betetzea ere.

Bide batez, aukera baliatzen du langile publikoak iraintzeko, patronalari erreferentziak emateko eta enplegu publikoa suntsitzeko.

Ez ditu sinatutako hitzarmenak betetzen, eta beraien ultraaktibitatea hausten du. Ondorioz, soldatak izozten ditu eta hitzartu eta sinatutako soldata-hobekuntzak ez ditu aplikatzen.

**2012:** Lopezen gobernuak (langileoi adarra jo eta ikus-kizun negargarri baten ostean) abendu aparteko ordainsaria kentzen digu langileoi (gogorazi behar dugu



aholkulariek bai kobratu zutela, langile publikoak ez zirela argudiatuz -zer dira orduan?-, eta egun, oraindik, ez dute gutxieneko etika eta zintzotasuna izan jasotakoa itzultzeko).

Baina, nork kendu zigun aparteko ordainsaria: Lopezek, Urkulluk? Bat etorri behar dugu biak izan zirela; ez bata ez besteak ez baitziguten eman nahi, eta, horregatik, ez genuen jaso. Bide batez, zirku mediatikoaren zurrunbiloan sartu gintuzten beste behin ere.

ITZARRIko ekarpenen %100 kentzea erabaki dute.

Berrito izoztu digute soldata.

Rajoyren gobernuak inoiz ez bezalako eraso egin die zerbitzu publikoari eta Justizia Administrazioari lan-baldintzei. Izan ere, lege-egitasmo baten bidez ekimen pribatuaren esku utzi nahi ditu erregistro zibila, betearazpenaren jakinarazpen-egintzak, tasa-legea, eta abar. Neurri horiek, berez, prekaritate handiagoa ekarriko dute, eta lanpostu-kopurua nabarmen jaitea.

**2013:** Urkulluren gobernuak, Raxoiren dekretuaren aitzakiapean (dekretua 2012ko uztailekoa da, eta urte horretan guztian Patxi Lopezek ez zion menik egin, inolako ondorioz ekarri gabe), soldata izoztu eta 35 orduko lanaldia kendu digu, eta IV Akordioa betetzeari uzten dio, parekatze kordioa sahistuz. Honela, berriro ere, Euskok Jaurlaritzako bigarren mailako funtzionarioak izatera pasatzen gara.

Norberaren zereginetako diren sei egun lapurtu dizkigute. Egunduek bere garaian soldaten izozteak eta erosteko ahalmenaren etengabeko murrizketak konpentsatzeko lortu genituen. Seigarren hiru-tekoaren ondorengo berezko zereginetako egunak ere lapurtu dizkigute eta baita zerbitzuan hamabost urtetik gora emanagatik geneuzkan opor egunak ere. Gure sektorea bereziki zigortua izan da lanaldigatik, Eusko Jaurlaritzako soldata mailara iritsi gabe.

**2014:** Laugarren aldiz, ondoz ondoko urteetan, iragarri digute soldatak izoztuko dizkigutela eta 1.614,5 orduko lanaldia.

# ELAren posizioa: ez dago ezinezkorik



2012ko aparteko ordainsaria, ITZARRIko ekarpenak) eta soldata berreskuratzea, azken urteotan galdutako erosteko ahalmena berreskuratu ahal izateko. Halaber, berriro %100 kobratzea aldi baterako ezintasunetan (sindikatu honen lorpen historikoa duela 30 urte).

Neurri hauek guztiak ezinbestekoak eta oinarrikoak dira aberastasunaren banaketa justuagoa egiteko, baita enplegua sortzeko ere.

### 3.- Akordioetan hitzartzen dena betetzeko konpromisoa.

- Pertsonaleko postuak balioestea, hitzartu eta sinaturiko baldintzetan. Horren ondorioz soldata-igoerak egin litezke.
- Librantza-egunak galtzearen truke osagarri bat (lanaldi etenaren osagarria bezalako) aplikatzea langileen kidego osoari, soldatak parekatzeko prozesuaren barruan.
- NOJ oraindik ezarri ez den herrietan lanpostuen zerrenda prestatzea.

- Justizia zerbitzu publiko moduan mantentzeko, eta haren esparru bat ere ez pribatizatzeko konpromisoa.
- EPERako deialdiak egitea, langileei egonkortasuna emateko.
- Justizia euskalduntzearen aldeko benetako apostua egitea.

### 4.- Lan-arriskuen prebentzioarako legea goitik behera betetzea.

Lan-arriskuen prebentzioa nahitaezkoa da, are gehiago krisia onartu ezinezko aitzakiatzat hartuta lan baldintzak suntsitzen diren garai hauetan. Justizia Sailak Prebentzio legea bete gabe jarraitzen du eta horregatik bere jarduna salatzen jarraituko dugu Lan Ikuskaritza aurrean. Horretarako kontzientzia lan bat egiten jarraituko dugu eta gure esku dauden bide guztiak erabiliko ditugu, langileok orain dela 15 urte baino gehiago lortua izan behar genuen segurtasun eta lan osasuna ahalbideratzeko.

**1.- Lana banatzea eta enplegua sortzea.** Gure proposamena da gutariko bakoitzak lan gutxiago egitea guztiok lan egin ahal izateko. Horretaz, ez dugu bakarrik exijitzen asteko 35 orduko lanaldia berriro jartzea eta sortzen diren aldi baterako beharrak betetzea, baizik eta haratago joan nahi dugu: lanaldia murriztea ere planteatzen dugu, enplegu publikoa banatzeko tresna bezala eta, aldi berean, enpresa pribaturako eredia izateko.

**2.- Soldatak igotzea.** Orain arte jasandako murrizketak indargabetu (2010eko %5,



# Krisia: errealitatea edo eskubiderik gabe uzteko zurigarria?

Behin eta berriro segurtatzen digute ez dagoela dirurik, eta, hori dela eta, murrizketak saihestezinak direla. Dena den, **komeni zaizu hauek ezagutzea:**

- 2007tik EAEko Barne Produktu Gordina (BPGd) konstante mantendu den arren, zerga bilketa %17 jaitsi da.
- EAEko presio fiskala Europar Batasunaren batz bestekoa baino %8 baxuagoa da. Presio fiskal berdinarekin urtero 4.400 milioi euro gehiago bilduko lirateke.
- Lan-errentek jartzen dute PFEZren diru-bilketaren %90, nahiz eta BPGdaren %45 izan. BPGdaren gainerako 55ak (enpresa- eta kapital-errentek) diru-bilketaren %10 jartzen dute bakar-bakarrik.
- Gastu publikoa Europar Batasunaren (EB) batez bes-

tekoa baino %5 baxuagoa da. Europako batz bestekoaren pareko gastua izanez gero, urtean 3.200 euro gehiago gastatu beharko lirateke.

- Foru Ogasunek baietsi eta onartutako iruzur fiskala BPGdaren %20tik gorakoa da. Iruzur horren %70etik gora enpresa handiek egiten dute; familiek egindakoa, aldiz, ez da %3ra ere iristen. Errenta-aitorpenen %1 baino ez da gainbegiratzen. Bada, IBEX 35ean kotizatzen duten enpresa gehienek egoitza dute paradisu fiskaletan.

Behin eta berriro esaten digute lagundu egin behar dugula. Baina **benetan guztiak hala egingen dute?**

- Egoera latz batean logikoen litzateke dirua hobeto banatzea, guztiak aurrera atera ahal izateko. Dena den,

soldatak BPGdaren %45 baino ez dira, duela urte gutxi batzuk %52 zirenean.

- Aldaketa hori honako hauek eragin dute: erabaki politikoek eta lan-arloan eta fiskalitatean izandako aldaketek; enpresa handien iruzurrarekiko permisibitateak, eta abar.
- Zergei dagokienez, kapital-errentek %21-22 ordaintzen dute. Laneko errentek gutxienez %23 ordaintzen dute.
- 165.000 eurotik gorako errentek %45 ordaintzen dute. Duela urte batzuk, %56.
- Enpresa-irabaziek %25,5 ordaintzen dute. Duela ez asko %30,5.
- Enpresa-errentek, batz beste, urteko 10.500 euro gutxiago aitortzen dute lan-errentek baino.

## ALTERNATIBARIK EZ DAGOELA DIOTEN HORIEK GEZURRETAN ARI DIRA

# Posible da egoera iraultzea

Zailtasunak zailtasun, leku askotan gai izaten ari gara murrizketei itzuri egiteko. Honatx hainbat adibide:

■ Nafarroan legez onartu da 35 orduko lan-astea eta %100 ordaintzea aldi baterako ezintasunetan. Egun, Nafarroako administrazioetan bi neurriak ari dira aplikatzen.

■ Nafarroan ere, legez onartu da Administrazio langileei diru-kopuru bat ordaintzea, 2012an ordaindu ez zitzaizen aparteko ordainsariaren parekoa. Lege hauen botoekin onartu zen: PSN, Bildu, Aralar-NaBai, Izquierda-Ezkerra eta Geroa Bai (PNV koalizio horren parte da).

■ Nafarroako hainbat udalek dagoeneko ordaindu dute 2012ko abenduko aparteko ordainsari hori: alde bozkatu zuten alderdiek gobernatzeko dituzten udalek eta UPNK

gubernaturiko beste zenbaitek ere bai.

■ Gipuzkoako Foru Aldundiak abenduko ordainsariaren pareko osagarria ordaindu zuen.

■ Donostiako Udalak ere gauza bera egin zuen.

■ Udal gehienetan 35 orduko lanaldia egiten da.

■ EAEko 50etik gora udalek 2012ko abenduko aparteko ordainsaria ordaindu dute.

■ Administrazio askotan, ABEn (Aldi Baterako Ezintasun) osagarria %100ekoa da. Are gehiago, PPK gubernaturiko hainbat administrazioetan -Gasteizko Udala kasu- araua askoz onuragarria da langileen-tzat Eusko Jaurlaritzan baino.

Murrizketetan bete-betean sartuta egon arren, gai izan gara hobekuntza batzuk lortzeko, hala nola borondatezko lanaldi jarria

eta lan-itunpeko langileen mugikortasuna.

Kontzientzia hartu behar dugu posible dela egoerari buelta ematea. Proposatzen duguna ez da utopia, borondate kontua da, nahi izatea, eta horrekin batera, mugitu eta horren alde borrokatzea.

Administrazio batzuetan posible izan bada, guztietan ere egin daiteke, baita Jaurlaritzan ere. Tokian tokiko borondate politikoaren mende dago, eta bertan langileok badugu zer esanik. Lortzea, neurri handi batean, gure gaitasunaren eta mugitzeko ahalmenaren datza.

### ANTOLAKUNTZA - MOBILIZAZIOA

**Eta antolakuntza on bat sindikalizaziotik etorri behar du. Sindikatua tresnarik sendoa da borrokarako "Borroka da bide bakarra"**



EUSKAL SINDIKATUA

[www.ela-sindikatu.org](http://www.ela-sindikatu.org)

Afiliazio orria

Hoja de afiliación

<b>NAVEIZ:</b> 3594	<b>Emakumezkoa / Mujer</b> <input type="checkbox"/>	<b>Lanlekina:</b> Enpresa
<b>Izena:</b> Kutxa	<b>Gizonezkoa / Hombre</b> <input type="checkbox"/>	<b>G.S.ko kolizazio kontu kodea:</b> Eragilearen sektoreko G.S.
<b>1. abizena:</b> 1º apellido		<b>Helbidea:</b> Euzkoia
<b>2. abizena:</b> 2º apellido		<b>Herria:</b> Euzkoia
<b>Jaiotze herrialdea:</b> Lugar de nacimiento	<b>Jaiotze data:</b> Fecha nacimiento	<b>Lanbidea:</b> Profesio
<b>Herria:</b> Localidad	<b>P.K.:</b> C.P.	<b>Kategoria:</b> Categoría
<b>Helbidea:</b> Dirección		<b>Lan-hitzarmena:</b> Convenio
<b>Herrialdea:</b> Provincia		<b>Banka edo Aurrezki Kutxa:</b> Caja de Ahorro
<b>Telefonoa:</b> Teléfono	<b>Mugikorra:</b> Móvil	<b>Kontuko zenbakia:</b> Nº de cuenta
<b>E-posta:</b> E-mail		<b>Data / Fecha:</b> <input type="text"/>
		<b>Sindikatu / Sindicato:</b> <input type="text"/>

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikak zehazten duenez, eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege-Dekretuak garatutakoaren arabera, ELA sindikatuak izena ematen duenak badaki, eta onartu egiten du, bere datuak Sindikatuko artxibo automatizatuaren jabetza izatea; datuak artxibo horietan era konfidentziala jabetza gertatuko dira. Datu horiek inoiz ere ezin dira erabiltzeko hartuz landa eta babestuko dira, eta bere titulomak eskubidea izango da Sindikatukoaren aurrean, datuetara iritsi, berriak zuzendu, ezabatu edo arku egiteko.

De acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de carácter Personal, y su desarrollo por el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, la persona que se afilia en el Sindicato ELA queda informada y acepta la incorporación de sus datos a ficheros automatizados existentes en el Sindicato, que se conservarán en el mismo con carácter confidencial. Tales datos serán tratados y protegidos con arreglo a la normativa vigente, y el titular de los mismos podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación o oposición ante este Sindicato.